



AUZITEGI PSIKIATRIAKO XXVII. BILTZARRA

(Sociedad Bilbaina –Bilbo)

2018-09-27

Jaun andreok, arratsalde on guztioi:

Señoras y señores buenas tardes a todas y todos.

Lehenengo eta behin, eskerrik asko Madariaga doktoreari, auzitegi-psikiatriako biltzar nazional honen hogeita zazpigarren edizioaren batzorde antolatzaileko presidente den aldetik, hura inauguratzen parte hartzera gonbidatzeagatik.

Zorionak batzorde antolatzaile osoari eta Auzitegi Psikiatriako Espainiako Sozietateko Zuendaritza Batzordeari, bere presidenteari eta sozietateko alma materrari, Calcedo doktoreari.

Biltzar honen edukia eta hizlarien kualifikazio handia kontuan hartuta, berehala ohartzen gara Auzitegi Psikiatriako Espainiako Sozietateak 28 urteotan eginiko lanak zer zorrotza izan behar duen.

Psikiatriaren eta legearen arteko harremana gure gizartearen garapen demokratikoaren eta giza eskubideen errespetuan eta bermean sakontzearen emaitza da.

Mundu globalizatuan bizi gara, eta mundu hau gero eta konplexuagoa da.

Aurrez aurre ditugun arazoek zenbait diziplinaren arteko harremanean oinarritutako erantzunak behar dituzte.

Arazoari zenbait ikuspuntutatik erantzun diezaioketen aditu profesionalak behar ditugu.

Horren adibide esanguratsua da Psikiatriak Justiziari eskaintzen dion laguntza.

Auzitegi Psikiatriako Espainiako Sozietateak urteotan eginiko jarduera guztia emakume eta gizon profesionalen talde baten borondate irmoaren emaitza da, pertsonen eskubideekin harreman zuzena duen psikiatriaren azpiespezialitatearen erkarpenetik gure gizartea hobetu nahi duten profesionalen borondatearen emaitza.

Gaur arte antolatu diren aurreko hogeita sei biltzarrek erakusten dute, besteak beste, Auzitegi Psikiatriako Espainiako Sozietateak psikiatriei indarreko esparru judizialari laguntza emateko duten eginkizuna betetzeko gaitasuna emango dieten lanbide-gaitasun gehiago emateko duen interesa.

Ekitaldi hau urtero egiten da, baina sozietatearen jarduera urte osora zabaltzen da; prestakuntza-ikastaroak edo tailerrak antolatzen ditu, auzitegi-psikiatriako profesionalen gaitasuna sustatzeko.

Auzitegi-psikiatreek ematen dituzten txostenak funtsezkoak dira hainbat eginkizunetarako, besteak beste: ebaluatutako pertsonaren gaitasun zibila balioesteko, zigor-erantzukizuna edo kalte psikikoaren estimazioa balioesteko.

Kontu horiek oinarrizkoak dira edozein prozesu judizialean, eta gero eta profesional kualifikatuagoak eta espezializatuagoak eskatzen dituzte.

Jardunaldian aztertu den tematika zabalak eta bihar aztertzen jarraitu denak erakusten digu gizarteak nolako bizitasuna duen eta bere ekimenek nolako kalitatea.

Mahaiak antolatu dira eta, horietan, zenbait gaitan sakontzen da, besteak beste: arreta psikiatrikoa espetxeetan, adingabeek behar duten arreta berezia edo auzitegi-psikiatria Europako esparruan sartzea.

Eusko Jaurlaritzan Justizia Administrazioari baliabide materialak eta pertsonalak hornitzeko eskumena duen saileko arduradun naizen aldetik, konpromisoa dut Euskadin justizia-zerbitzuen kalitateari eta harekin lotutako alderdien maila aitzindariari eusteko.

Justiziarik eskaintzen dizkiogun zerbitzuen kalitatearen adibide nabarmena gure Sailean integratuta dagoen Lege Medikuntzako Euskal Institutua da; esperimentu handiko profesional trebeek kudeatzen dute.

2011n, Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean bi hitzarmen sinatu ziren, eta, horien bidez, espetxerako neurri alternatiboak sustatzen ziren.

Hitzarmen horien bidez, Euskadi da espetxerako neurri alternatibo guztiak kudeatzen dituen autonomia-erkidego bakarra, eta, bertan, arazo psikiatrikoak dituzten kondenatuek laguntza berezia dute.

Programak ezarri dira Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan laguntza psikiatrikorako, eta Osakidetzako Psikiatriako profesionalak sartu dira espetxe horietako osasun-taldeetan.

Osakidetzako ospitaleetan askatasunaz gabetzeko segurtasun-neurrien betearazpena orokortu da eta, hala hitzartuta, Aita Menni zentroan 20 oheko unitatea sortu da.

Unitate aitzindaria da Estatuan, berezia arretan segurtasun-maila handia behar duten gaixo psikiatrikoetan segurtasun-neurriak betetzeko.

Lan eta Justizia Sailaren hurrengo erronka espetxeen kudeaketa izango da. Transferentzia horretarako Espainiako Gobernuarekin egin beharreko negoziazioa lehentasunekotzat ezarrita dago hamaikagarren legegintzaldi honetako Gobernu Programan.

Espetxeak kudeatzeko eredu berezia zehazteko lanean ari gara; hura, baterako legegintza-xedapenetara mugatuta egonik ere, askatasunaz gabetuta dauden pertsonen tratamenduan aurrerapena ekar dezan nahi dugu.

Helburu dugun ildotik aurrera egiteko, horretan laguntzen ari zaizkigun adituak ditugu, baina badakigu ezinbestekoa dela orain kudeatzen ditugun zerbitzuak finkatu eta ziurtatzea, bai eta lehen aipatu ditudan hitzarmenen ondoriozkoak ere.

Horretarako, laguntzen ari zaizkigun gizarte-erakundeekin jarraituko dugu.

Eskerrik asko, zehazki, Madariaga doktoreari eta Aita Menniko talde osoari, beren elkarlan eta dedikazioagatik.

Psikiatriak eta Legeak beren arteko harremanean sakontzen jarraitu behar dute.

Biltzar hau egiten ari diren aurrerapenen adibide argia da.

Gero eta beharrezkoagoa da osasun mentaleko munduko pertsonen eta eremu judizialarekin zerikusia duten beste batzuen arteko elkarlana, egunotan ikusten ari garen bezala.

Administratziotik lotura hori eragin eta sustatu behar dugu. Arrakasta ahalegin partekatuen ondorioa izango da.

Eskerrik asko.